

Jarduera sustatzailea – Actividad impulsada por



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

ZINEMA IKASLEEN XIV. NAZIOARTEKO TOPAKETAKO ORONA SARIA

ARAUDIA

Donostia Zinemaldiak eta Tabakalerak, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak, elkarrekin antolatu dute Zinema Ikasleen XIV. Nazioarteko Topaketa, eta Donostia 2016k, Europako kultur hiriburuak, sustatutako jarduera bat da.

Donostia Zinemaldiaren egoitza nagusia honako helbide honetan dago:

DONOSTIA ZINEMALDIA
Victoria Eugenia Antzokia
Okendo Plaza, 1
20004 Donostia
Tel.: +34 943 481212
Faxa: +34 943 481218
ssiff@sansebastianfestival.com

Zinemaldiaren webgune ofizialak: www.sansebastianfestival.com, informazio zehatza eskaintzen du, eta Zinemaldiarekin eta bertako sailekin harremanetan jartzeko datuak ere biltzen ditu.

DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA Sozietate Anonimoa Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espainiako Gobernuak Kultura, Hezkuntza eta Kirol Ministerioak osatzen dute zati berdinetan, eta Donostiako alkate Juan Karlos Izagirre du presidente. [Donostia Zinemaldiko antolakuntzaren](#) burua jaialdiaren zuzendaria José Luis Rebordinos da.

Donostia Zinemaldia Film Ekoizleen Elkartearen Nazioarteko Federazioan (FIAPF, www.fiapf.org) onartuta dago, «Lehiatzeko zinema-jaialdiak» kategorian.

1. ARTIKULUA

Donostia Zinemaldiak ekarpen positiboa egin nahi dio kulturari eta zinema-industriari.

2. ARTIKULUA

Donostia Zinemaldiaren 63. edizioa Donostian egingo da, 2015eko irailaren 18tik 26ra bitartean. Zinema Ikasleen XIV. Nazioarteko Topaketa, berriz, 2015eko irailaren 22tik 25ra artean antolatuko da.

3. ARTIKULUA

Zinema Ikasleen XIV. Nazioarteko Topaketara aurkeztzen diren laburmetrai guztiak Topaketaren hautaketa-batzordeak aukeratuko ditu. Hautaketa – batzorde hau Zinemaldiko Maialen Belokik eta Amaia Serrullak, Tabakalerako Victor Iriartek eta Donostia/San Sebastián 2016 Fundazioko Lorena Montejok osatzen dute.

4. ARTIKULUA

Jarduera sustatzailea – Actividad impulsada por



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

Zinema Ikasleen XIV. Nazioarteko Topaketako laburmetrai berritzaileenari emandako Orona Saria, Orona Fundazioak **babestuko du eta hautatutako laburmetraiairen zuzendaria 5.000 euro gordin jasoko ditu.**

5. ARTIKULUA

Orona Sariaren helburu nagusia kulturari ekarpen positiboa egitea da.

6. ARTIKULUA

Zinema Ikasleen XIV. Nazioarteko Topaketan aukeratzen diren proiektu guztiek eta zeinen ordezkariak sariaren oinarriak onartu dituzte, izango dute Orona Saria irabazteko aukera.

7. ARTIKULUA

Orona Sarirako hautagai izateak honako hauek dakartza berarekin:

- Araudi hau onartzea.
- Proiektuen izen-emate onlineko formularioa behar bezala beteta edukitzea. Formularioa webgune ofizialean aurki daiteke: www.sansebastianfestival.com

8. ARTIKULUA

Laburmetraiak aukeratzeko erabakia apelaezina izango da.

Zinemaldiak eta Tabakalerak hautatutako laburmetraiei egindako gonbidapena konfidentziala izango da erabat, eta zuzendariek eta ordezkariak isilpean gorde beharko dute, Donostia Zinemaldiak ofizialki jakinaraztea erabakitzen duen arte.

9. ARTIKULUA

Sariaren onarpenak ez dakartza saritutako lanaren ustiapen eskubideen lagapena, ez lehiaketari aurkeztutako lanen gaineko lehentasunezko aukera-eskubide-ematea.

10. ARTIKULUA

Orona Saria Orona Fundazioak hori erabakitzeko berariaz osatu eta aukeratutako epaimahai batek erabakiko du. Epaimahai hau ikasleek osatuko dute eta irakasle bat izango dute buru.

11. ARTIKULUA

Orona Saria ezingo da eman gabe utzi, ez eta laburmetrai bati baino gehiagori eman ere.

12. ARTIKULUA

Orona Saria 2015eko irailaren 25ean –ostirala– jakinaraziko da, Zinema Ikasleen XIV. Nazioarteko Topaketaren esparruan antolatutako ekitaldian.

13. ARTIKULUA

Araudi honen interpretazioan sor daitekeen edozer zalantza Donostia Zinemaldiaren zuzendaritzak ebatziko du.

14. ARTIKULUA

Araudi honen interpretazioari buruzko desadostasunik balego, gaztelaniazko testua aplikatuko da.